

HERRI JAI FEMINISTAK, 2016

Hau ez da gure bakea!

Jaiak eta plazak gureak dira!

“Tengamos la fiesta en paz!” entzun izan dugu hainbat eta hainbat aldiz. Festak gure errealitatetik ihes egiteko burbuilatzat saldu dizkiguten arren, festak ez dira jendartetik at dauden bake eta poz gune isolatuak. Festak politikoak dira, guzointzat. Eduki sinbolikoa duten jendarte eta kultur adierazpenak dira, errealitatearen adierazle kondentsatuak. Jaietan norbanakoa kolektibora hurbiltzen duten prozesu subjektibo eta objektiboak ematen dira. Beraz, festak bizitzaren erdigunean kokatzen ditugu, jendartearen balioak, nortasunak, ideologiak eta egiturak birstortzen dituztelako. Jaiek jendartean dauden gatazkak, zapalkuntzak eta diskriminazioak adierazten dituzte, hegemonikoak diren genero eredu eta heteroaraua indartuz.

Jaietan, “dena libre” denaren aitzakiapen, eraso sexisten ofentsiba nabaria da: begiradak, irainak, gutxiespenak, bortxaketak, erailketak... Horregatik diogu hau ez dela gure bakea. Iazko udan sozialki salatutako eraso mordoa gogoratu besterik ez dugu behar. Urte luzez mugimendu feministak egin duen lanari esker lortzen ari da jendartea kontzientziatzea, protokoloak gero eta auzo eta herri gehiagotan lantza, arazo hau guzion ardura dela sentitza. Hala ere, emakumeak erasotzea oso gaizki ikusia dago eta guztiok indarkeria sexistaren kontra gaude emakume horrek erantzuten ez duen bitartean. Emakumeok dagokigun biktima paper pasibotik ateratzen garenean eta geure burua defendatzen dugunean egun oraindik ahoberro, zoro, histerikak edo feminaziak garela entzun behar izaten dugu. Erantzuten badugu, zalantzan jartzen zaigu.

Emakume errebelde eta mugimendu feministarekiko deslegitimazio saiakera hoien gainetik, guk autodefentsa feministan berresten gara. Defentsarako eskubidea, eskubide unibertsala delako. Eta erasoen aurrean erantzun bat ematea zilegia delako. Gure gorputzak, autoestima eta bizitzak dira jokoan daudenak. Gasteizen antolatutako manifestazio nazionalean esan genuen moduan, feministok prest gaude! Urteak daramatzagu prestatzen, elkarrekin ahalduntze prozesuak konpartitzen, gure arteko sareak indartzen, gure amorrua ateratzen eta antolatzen, kaleak eta gauak okupatzen, inposatu diguten beldurra deseraikitzen... eta bide honetan jarraituko dugu jaeten ere. Elkarrekin geldiezinak gara!

Erasoen kudeaketaz gain, ezinbestekoa deritzogu, jai ereduaren inguruko lanketa ikuspegi feministak batetik egiteari. Erabili dezagun jaietako indar sortzailea eredu askatzaileak praktikara eramateko eta nahi ditugun herri eta harreman ereduak eraikitzea: publiko-pribatua, lan-aisialdi edo borroka-plazera dikotomiak behingoagatik lehertzeko! Honela, gure jaietako antolaketa eta


garapena bera, prozesu kontziente bilakatu behar dugu zirrikitu guztietatik, eta ezarria den ordena soziala eraldatzeko baliatu ditzagun: nola antolatzen den jai batzordea, egitaraua osatzeko orduan jarraitzen ditugun irizpideak, komunikazio ez sexistaren erabilera, zein arduratzen den zaintza lanez, eta erasoei aurre egiteko aldez aurretik adosten ditugun erantzunak edo protokoloak aztertzeari.

Norberak erabakiz, guztiok gozatuz, sortu ditzagun festak guztiontzako espazio seguru eta gozamen iturri! Soilik gure jardunaren eta ekintzen jabe bagara eskaini ahal izango ditugu guztiok gozatzeko moduko ikuskizun, kalejira, harreman, musika, otordu, txaranga, jolas zein dantzak. Argi izan matxirulo, erasoen aurrean feministok prest gaude!

Jaiak eta plazak gureak dira!!!



**euskal herriko bilgune feminista
Euskal Herrian, 2016ko ekaina**



FIESTAS POPULARES FEMINISTAS, 2016


Esta no es nuestra paz!

Las fiestas y las plazas son nuestras!

Hemos oido una y otra vez eso de “Tengamos la fiesta en paz!”. Y no es una vana afirmación, ya que las fiestas se han vendido como burbuja de escape de la realidad. Pero claro, las fiestas no son espacios de paz y alegría ajenos a la sociedad. Las fiestas son políticas, para todo el mundo. Son expresiones sociales y culturales llenas de contenido simbólico, expresiones condensadas de la realidad. En las fiestas se dan procesos subjetivos y objetivos que acercan individuo y colectivo. Por lo tanto, entendemos que las fiestas ocupan un lugar central en nuestras vidas, donde reproducimos los valores, identidades, ideologías y estructuras de la sociedad. Las fiestas expresan los conflictos, las opresiones y las discriminaciones existentes en la sociedad: múltiples jerarquías, relaciones de poder, violencia, distribución de roles... En general, reforzando el modelo de género y la heteronorma hegemónicos.

En fiestas, bajo la excusa del "todo vale", se agudiza la ofensiva de las agresiones sexistas: miradas, insultos, desprecios, violaciones, asesinatos... Por eso decimos que esta no es nuestra paz. Para muestra el montón de denuncias públicas de agresiones que ocurrieron en espacios festivos el verano pasado. Gracias al trabajo que ha realizado el movimiento feminista durante años estamos consiguiendo que la sociedad se conciencia ante estas agresiones; cada vez más barrios y pueblos elaboran sus protocolos; al fin y al cabo, cada vez más gente siente como suya la responsabilidad. Aunque la mayoría de la sociedad este en contra de las agresiones, todo el mundo apoya a la víctima hasta que ésta decida responder. Si las mujeres osamos salir del papel de víctima pasiva y nos defendemos a nosotras mismas, aún hoy tenemos que escuchar que somos “unas calentadas”, locas, histéricas o feminazis. Si respondemos, se nos pone en duda.

Frente a este intento de deslegitimar a las mujeres rebeldes y el movimiento feminista, nosotras continuaremos con la autodefensa feminista. Porqué el derecho a la defensa es un derecho universal y frente a una agresión siempre es legítima la respuesta. Son nuestros cuerpos, autoestimas y vidas las que están en juego. Como dijimos en la manifestación nacional que organizamos en Gasteiz, Feministok Prest! gaude (las feministas estamos preparadas).. Llevamos años preparándonos, compartiendo procesos de empoderamiento, reforzando nuestras redes, canalizando y sacando nuestra rabia, okupando las calles y la noche, desmontando el miedo que nos han impuesto... Y en fiestas seguiremos en ese camino. ¡Juntas somos imparables!



Aparte de gestionar todo tipo de agresiones, creemos imprescindible trabajar el modelo de fiestas desde una perspectiva feminista. Utilicemos el potencial creativo que nos dan las fiestas para llevar a la práctica ejemplos liberadores y los tipos de relaciones y ciudadanía que queremos: reventemos de una vez dicotomías como público-privado, trabajo-ocio o lucha-placer! De esta manera, la propia organización y desarrollo de nuestras fiestas tiene que ser un proceso consciente por todos los resquicios, que nos sirva para cambiar el orden social establecido: cómo se organiza la comisión de fiestas, las pautas que seguimos al determinar el programa, quién se ocupa de los trabajos de cuidado, y las respuestas que previamente acordamos para responder a las agresiones o el análisis de protocolos.

Cada unx decidiendo, para que todxs gocemos, ¡hagamos de las fiestas un espacio seguro y fuente de disfrute para todxs! Solamente tomando conciencia de nuestras prácticas y acciones podremos ofrecer espectáculos, "kalejiras", relaciones, música, comidas, charangas, juegos y bailes para el disfrute de todas las personas. Argi izan matxirulo, erasoen aurrean feministok prest gaude!

iiiLas fiestas y las plazas son nuestras!!!

